

XOTX EGITEKO JOKOAK

TALDE HAUNDIAN HAUR BAT HAUTATZEKO

BIRA BIRA ORRATZA :

Haurrak borrobian ezarri dira.

Bat erdian ezartzen da. Esku batez,

begiak gordetzen ditu eta beste besoa luzatzen du ordulari orratza balitz bezala.

Denek kontina erraten dute –

Ber denboran orratza hasten da biratzen :

-« **Bira bira orratza :1,2,3,4,....12 : eguerdi da** »

Bapatean gelditzen da orratza eta esku puntatik erakusten duen haurra hautatua da .

BI HAURREN ARTEAN : BIETARIK BAT HAUTATZEKO :

« **Sagar gorri, sagar berde eta orain kanpo zaude.** »

BI TALDE ANTOLATZEKO :

Talde haundian erakasleak izendatzen ditu bi buruzagi.

- Buruzagi bakotzak talde haundian, lagun bat deitzen du (txandaka).

« **Jon , zatoz nerekin** ».....

Edo/eta

- Buruzagia deitu duen lagunak beste haur bat deitzen du:

« **Lea, zatoz gurekin** »